

KANBOKO HERRIA

Pirineo Atlantikoetako departamendua

2022ko APIRILAREN 12ko HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIEN BILKURA AGIRIA

Bi milla hogeita bigarren urteko Apirilaren 12an behar bezala deitua izan zen Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu zen, Christian DEVÈZE auzapeza zen mahaiburua. Bilkura 19:00tan hasi zen.

Presente ziren : Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Robert Poulou (19:58ak arte), Christiane Hargain-Despéries, axuantak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy (19:48ak arte), Jean-Paul Eyherachar (20:00tatik goiti), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe (19:10tatik goiti), Maud Gastigard, Roger Barbier (20:00tatik goiti), Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, hautetsiak.

Ez ziren presente edo ez zirela etorriko jakinarazi zuten : Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou (19:58tatik goiti), Vincent Goytino, axuantak, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy (19:48tatik goiti), Jean-Paul Eyherachar (20:00ak arte), Isabelle Ayerbe (19:10ak arte), Jean-François Lacosta, Roger Barbier (20:00ak arte), Jean-Paul Alaman, hautetsiak.

Ahalordez : Didier Irastorzak Eliane Aizpururi, Maria Aristizabalek Yolande Huguenard-i, Robert Poulouk Bernadette Remeau-ri (19:58tatik goiti), Vincent Goytinok Jean-Noël Magis-i, Corinne Othatcegyk Christiane Hargain-Despéries-i (19:48tatik goiti), Jean-Paul Eyheracharrek Christian Devèze-i (20:00ak arte), Roger Barbierrek Bernadette Remeau-ri (20:00ak arte), Jean-Paul Alamanek Argitxu Hiriart-Urrutyri.

- **Bilkurako idazkariaren izendapena.**

Presente ziren partaideek **aho-batez** Jean-Jacques Lassus bilkurako idazkari izendatu dute.

28 – Bordart etorbidean lursail baten erosketa : (txostengilea Magis Jauna).

Herriko Kontseilua, Bordart etorbidean den lursail kadastratua, AV 297 eta 299 sekzioa, erosketari buruzko iritzia emaitera gomitatua da. Lursailak 32 m² ko azalera du eta Kanboko herriak euro sinboliko baten truke erosiko balu, erreserbatua den 22. tokian bidea zabalduko luke. Tokiko Hirigintza Planoak aurreikusten duen bezala etorbide hori 10 metrotako plataformaz zabalduko litzateke.

Aho-batez onartua izan da.

2022ko Apirilaren 12ko HKaren bilkura agiria.

29 – Langilegoa: langile kopuruaren taularen eguneratzea (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua 2022ko Martxoaren 31ean eta sintesi ohar argigarrian zehaztua bezala, langile kopuruaren taularen eguneratzea onestera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

Isabelle Ayerbe salara sartzen da.

30 – Langilegoa: Tokiko Batzorde Sozialaren sorrera eta langileen ordezkarien kopuruaren finkatzea (txostengilea Auzapez Jauna).

Tokiko kargu publikoaren aldaketarako legeak, 2019ko Abuztuaren 6koa, Tokiko Batzorde Soziala (CST) instantzia berria sortu du. Gaurko Batzorde Teknikoa eta Comité d'Hygiène de Sécurité et des Conditions de Travail (CHSCT) delakoaren fusiotik dator eta 2022ko Abenduko hauteskunde profesionaletan abiatuko da Tokiko Batzorde Soziala (CST).

Herriko agente guzientzat eta CCASarentzat, bietan aditua den egitura amankomuna ukatearen interesa ikusirik, Herriko Kontseiluari CST amankomun baten sortzea proposatua zaio.

Herriko Kontseiluari honako hau galdegiten zaio:

- Sintesi ohar argigarrian zehaztu bezala, herriko agente eta CCASaren gaietan aditua den CST amankomun baten sortzeari buruzko iritzia ematea.
- Langileen ordezkartzaren kopurua eta beraien banaketa finkatzea, erran nahi baitu bi Herriarentzat eta bat CCASarentzat.

Aho-batez onartua izan da.

31 – Finantzak: M57 delakoan ondasun imobilizatuen amortizazio epeak (txostengilea Aizpuru Anderea).

2022ko Urtarrilaren lehenetik goiti M57 diruzaintza eta aurrezki nomenklatura berria abiatzeak ondasun imobilizatuen amortizazioaren kudeaketa moldeak finkatzea dakar.

Herriko Kontseilua, sintesi ohar argigarriaren gehigarrian aurkeztuak diren imobilizazioen epe berriei buruzko iritzia ematera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

32 – Finantzak: maileguen *fongibilité* delakoa M57an (txostengilea Aizpuru Anderea).

M57 instrukzioak Auzapezari ordezkaritza emaita baimentzen dio Herriko Kontseiluari. Horrela auzapezak kapituluz-kapitulu mailegu mugimenduak egin ditzake langileen gastuei dagozkien maileguentzat, salbu sekzio bakoitzaren gastu errealen %7,5-aren mugetan. Kasu horretan datorren bilkuran, auzapezak, egin dituen mailegu mugimenduak asanblada erabakitzaileari jakinaraziko dizkio.

Herriko Kontseilua auzapezak kapituluz-kapitulu mailegu mugimenduak egin ditzan baimena ematera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

33 – Finantzak: Aurrekontu eta Finantza Arautegia (RBF) (txostengilea Aizpuru Anderea).

2022ko Urtarrilaren lehenetik goiti M57 aurrekontu eta kontu nomenklatura berria abiatzearen harira, elkargoak derrigorrez Aurrekontu eta Finantza Arautegia (RBF) ontzat eman behar du. Finantza antolaketa arrazionalizatzea eta argitzea eta tokiko kontuen aurkezpena da helburua.

RBF delakoa beharren arabera eta disposizio legislatibo eta arauzkoaren garapenaren arabera eguneratua izanen da.

Herriko Kontseilua sintesi ohar argigarrian gehitua den Aurrekontu eta Finantza Arautegiari buruzko iritzia ematera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

34 – Tokiko zergak: tasen finkatzea (txostengilea Auzapez jauna).

Herriko Kontseilua elkargoaren lurraldean erabilgarriak diren tasa fiskalak ontzat ematera gomitatua da. Hori, etxeekilako lurren (TFB) eta etxerik gabeko lurren (TFNB) lur-zergentzat.

2021. urteko bukaeraz geroztik inflazio tasen gorakada ikusirik, bi lur-zergen tasen igoera proposatua da, +%2,10-ko igoera alegia :

Etxeekilako lurren zerga (TFB) : %24,86

Etxerik gabeko lurren zerga (TFNB): %25,99

Gehiengoarekin onartua izan da.

Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, eta Alain Boscq-ek kontra bozkatu dute.

35 – Elkarteei diru-laguntzak (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua, sintesi ohar argigarrian zehaztua den bezala, 2022. urterako elkarteei esleitutako 330 950 €tako diru-laguntzari buruzko iritzia ematera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

36 – C.C.A.S delakoari diru-laguntzak (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua 2022. urterako C.C.A.S delakoari 160 000 €tako diru-laguntza esleitzera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

37 – Eskolen Kutxari diru-laguntza (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua, sintesi ohar argigarrian zehaztua den bezala, 2022. urterako Eskolen Kutxari 6 330 €tako diru-laguntza esleitzeari buruzko iritzia ematera gomitatua da.

Aho-batez kontutan hartua.

38 – Hautesien ordainsarien laburbilduma (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua 2021. urtean hautetsien ordainsarien laburbilduma kontutan hartzerara gomitatua dira.

Kontutan hartua.

Corinne Othatcegy eta Robert Poulou salatik ateratu dira.

Jean-Paul Eyherachar eta Roger Barbier salara sartu dira.

39 – Aurrekontu nagusia: 2022ko lehen aurrekontuaren bozka (txostengilea Aizpuru Anderea).

Herriko Kontseilua aurrekontu nagusiaren 2022ko lehen aurrekontuari oniritzia emaitera gomitatua da. Horretan funtzionamendu sekzioa 6 617 797 €tan orekatzen da eta inbertsioena 4 766 969 €tan.

Gehiengoarekin onartua izan da.

Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, eta Alain Boscq-ek kontra bozkatu dute.

2022ko Apirilaren 12ko HKaren bilkura agiria.

40 – Mailegu eta Programa ordainketen baimenak (txostengilea Aizpuru Anderea).

Lurralde-elkargoko Kodigo Orokorreko L2311-3 artikuluan erran bezala, inbertsio gastuetara bideratutako aurrekontuen emaitzek mailegu eta programa ordainketak barnebiltzen ahal dituzte (AP/AC).

- Programaren baimenak (AP) : programaren inbertsio gastuen osotasuna estaltzen du
- Ordainketa mailegua (CP) : dagokion ariketari lotua den aurrekontu inskripzioen kopurua finkatzen du.

Herriko Kontseilua, sintesi ohar argigarrian zehaztua den bezala, 2022. urteko mailegu eta programa ordainketen baimenei buruzko iritzia emaitera gomitatua da. Ondoko operazio hauei begira:

- Haurzain argiztapen publikoa
- Elizako organoa
- Tennis estaliak
- Arnagaren aitzinaldea.

Gehiengoarekin onartua izan da.

Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, eta Alain Boscq-ek kontra bozkatu dute.

41 – Columbarium sotosken aurrekontu gehigarria : 2022. urteko lehen aurrekontuaren bozka (txostengilea Aizpuru Anderea).

Herriko Kontseilua Columbarium sotosken aurrekontu gehigarriaren 2022. urteko lehen aurrekontua onestera gomitatua da. Azken honek sekzio bakarra du, 35 943 €tan orekatzen den funtzionamenduarena.

Aho-batez onartua izan da.

Gai-ordena betea izan denez, bilkura 21:00tan bukatu da.